



BID-REX Euskadi INFORMAZIOA PREMIETARA EGOKITZEA



**Eragileekin egindako Eskualde mailako 2. Tailer partizipatiboaren
ondorioak**

**2017ko maiatzak 23
Vitoria – Gasteiz**

BID-REX EUSKADI: PROIEKTURA SARRERA


ZERGATIK HASI DUGU PROZESU HAU?

Erakunde eta ekimen askok, beren ekarpenekin, biodibertsitateari eta ekosistemak mantentzeko zerbitzuen inguruko zientzia informazio eta ezagutzen sorrerari laguntzen diote; informazio hori guztia funtsezkoa da erabakiak hartu, arauak garatu eta etorkizuneko estrategia politikoak zehazteko. Halere, egun ez dago informazio hori guztia bildu, laburbildu eta aztertzeko gai den eta erabakiak hartzea erraztuko lukeen onartutako eta egiaztatutako mekanismorik.

Egoera horri aurre egiteko, Eusko Jaurlaritzako Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza BID-REX Europako proiektuan inplikatu da, **biodibertsitateari eta ekosistemen zerbitzuei buruzko interfaze zientifiko-politikoa indartzeko xedearekin, aniztasun biologikoaren babesa eta erabilera iraunkorra, gizakion ongizatea eta garapen iraunkorra sustatzeko.**

PROIEKTUA

BID-REX Interreg Europe programak finantzatu duen proiektu europar bat da. 5 urteko iraupena du (2016ko apirila – 2021eko martxoa) eta **helburu bikoitza dauka:**



Eusko Jaurlaritzaren Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzako Zuzendaritzarekin batera Europako beste 6 eskualdek hartzen dute parte (Katalunia, Nolfork konderria – Erresuma Batua, Marche eskualdea – Italia, Ljubljana Marsh – Eslovenia, Iparraldeko Lautada Nagusiko eskualdea – Hungaria eta Valoina – Belgika).

Ikaste partekatuko prozesu hau **honako helburuak lortzera bideratua dago:**

- **Lehentasunak hobetzea** biodibertsitatearen arloko kontserbazio-ahaleginari dagokionean, biodibertsitatearen eta ingurumenaren inguruan eskuragarri dauden datuetan oinarrituriko metodoak erabiliz.
- **Gida bat.** Europako natura-ondareari babesteko esfortzuei emaniko funtsen eragina handitu ahal izateko biodibertsitateari buruzko datuak nola bildu eta erabili beharko genituzkeen azalduko du.
- Eskualdeen arteko trukearen ondorioz, inplikaturiko eragileek eta kideek **biodibertsitatearen inguruko datuak kudeatzeko beren gaitasunak hobetuko dituzte**

PARTE HARTZEKO SAIOA: DISEINUA ETA EDUKIAK


Dokumentu honetan Eusko Jaurlaritzaren Gasteizko egoitzan maiatzaren 23an egin zen **eskualde mailako bigarren tailer partizipatiboan** bildutako ekarpen nagusien laburpena biltzen da. Bertan 24 pertsonak hartu zuten parte (ikus eranskina).

Tailerra Eusko Jaurlaritzaren Ingurune Naturalaren eta Ingurumen Plangintzako Zuzendaritzak antolatu zuen, Innobasque erakundearen laguntzarekin. Europan egiten ari den prozesuarekin batera iragan otsailean eskualde mailan hasitako prozesuari jarraipena emateko egin zen tailerra.

SAIOAREN IKUSPEGIA

2017ko otsailaren 6an egin zen [lehen tailer partizipatiboan](#) erabakiak hartzeko informazio-premien gaia aztertu genuen, eta Euskal Autonomia Erkidegoan esparru honen sendotasunak eta ahuleziak ezagutu genituen.

Gaur egungo egoera (*non gaude*) garatu ondoren, **bigarren tailerra gauzak ondo egiten ari garen eta sortzen dugun informazioak gure beharrei erantzuten dien (*nora joan nahi dugu*) ebaluatzeko aukera gisa planteatu da. Horretarako, lehen tailerrean identifikatutako [ahultasunak eta sendotasunak eta hobetzeko proposamenak](#), batetik, eta proiektu europarraren esparruan egindako [galdeketak](#), bestetik, hartuko dira erreferentzia gisa.**



SAIOAN AZTERTUTAKO EDUKIAK

Lehendabizi, Saileko eragileek hainbat azalpen eman zituzten ikuspegi bikoitz batetik (betebeharra eta aukera) **Administrazioaren informazio-beharrak zein proiektua kokatzeko:**

- [BID-REX proiektua: informazio-premiei buruzko tailerren ondorioak](#) (Euskadi eta Valonia) – Marta Iturribarria, Eusko Jaurlaritza.
- [Natura 2000 Sarea eta Natura babesteko Zuzentzaueketan bildutako betebeharreri erantzuteko behar den informazioa](#) - Marta Rozas, Eusko Jaurlaritza.
- [Zer ekarpen egin diezaguke lurraldeari buruzko informazioaren urruneko argazkiak \(kartografia, sateliteko irudiak, LIDAR eratorriak, etab.\)](#) – Juan Carlos Barroso, Eusko Jaurlaritza; Xabier Garitano, HAZI.

Ondoren, **bi eduki multzoren inguruan elkarlanean jardun zen:**

- Administrazioaren **informazio-beharrak:** arazoak eta aukerak
- Behar horiei erantzuteko **lankidetzak publiko eta pribatuko aukerak.**

Ondoren, bilera horretan bildutako **ekarpenen laburpen egituratua** azalduko dugu.

BILDUTAKO EKARPEN NAGUSIEN LABURPENA

BEHAR DUGUN INFORMAZIOA: ERRONKAK, ERANTZUNAK ETA AUKERAK

Zein datuk osatzen dute beharrezko informazioa?

Lehen urratsa da **zein datu (eskuragarriak ala ez) diren ezinbesteko informazio erabakitzea**, definizioz datuak mugagabeak direlako. Gaur gaurkoz, nahasmena eragiten duten datu ugari daude. Nahasmena, bai datuak interpretatzeko garaian zein erabakiak hartzeko zein datutan oinarritu behar den erabakitzeke garaian.

Zer da eta nola erabakitzen da datu

Datutan oinarritutako politikak **datuan konfiantza edukitzea** eskatzen du (jatorria, kalitatea, fidagarritasuna, metodologia, etab.). **Irizpide objektiboak definitu** behar dira eta *adituen* iritzitan gutxiago oinarritu behar da, datua aukeratzeko eta nahi ditugun agertokiak edo irizpide hoberenak definitzeko. Ebidentzia zientifikoa eta adostasuna oso garrantzitsuak dira datuen adierazleak definitzeko eta prozesuan ebaluazio-eragile berriak tartean sartzeko (*protokolo edo informazio egokirik ez badago, "eskura dagoenarekin" erabakitzen da*).

Zergatik gertatzen da hau?

- Pertsonal politikoari **beharrak ez komunikatzeagatik eta transmititzeagatik**
- Datuak eta informazioa **ez iragazteagatik eta ez lehenesteagatik**
- Erakunde barruan eta erakundeartean **ez koordinatzeagatik eta kooperatzeagatik**
- Zailtasun teknikoak areagotzen dituzten **finantziario eta giza baliabide** faltagatik.
- Esparruaren arabera identifikatutako pertsona adituen faltagatik (datu-baseak desegitea)

Datuak erabilgarri daude? Eskuragarri dira?

Datu asko edukitzeak, antolakuntza- eta sistematizazio-faltarekin batera, datu horiek eskuratzea zailtzen du. Zenbait kasutan ez dakigu datua existitzen den edo zein formatutan den eskuragarri. Iturri desberdinak (ad. ingurumen inpaktuko azterketen datuak) eta teknologiak bateratuz, datuen normalizazioak eta integrazioak datuen erabiltzaileen eta eragile kudeatzaileen lana erraztu dezakete. Beste kasu batzuetan, datua ez da existitzen zailtasun teknikoengatik, prestakuntzako zailtasunengatik, denbora- eta espazio-ebazpenean hutsuneak daudelako, etab. **Datuen hutsuneak benetan non dauden identifikatu eta zuzendu** behar dira.

Agertoki honetan aukera **diferenteak** planteatzen dira **erroka horiei aurre egiteko**, baita **beharrezko informazioa eta datuak eskuratzeko** ere. Hauek 5 **ekintza-ildotan** multzoka daitezke:



1. Ezagutza-lehentasunak

Ezagutza-lehentasunak identifikatzea, eta **datuaren kalitate-adierazleak garatzen** lagunduko duten eta hauen **kalitatea kontrolatuko duten** pertsona/eragile adituen taldeak osatzea. Eginkizun horretan pertsona eta eragile kopuru handiena nahasteko, **arbitraje-lan hau nabarmendu** behar da (aitorpen publikoa) eta **konpentsazio- eta itzulera-mekanismoak** eskaini behar dira.

2. Datuen protokoloak

Datuak sortzeko eta kudeatzeko protokoloak edukitzea, normalizazio- eta integrazio-prozesuen bitartez, datu horien eskuragarritasuna bermatzeko (adibidez, Ingurumen Inpaktuaren Ebaluaziotik hartutako datuak, esparru-zuzentzarauetatik jasotako datuak, etab.). Protokolo horien bitartez **hainbat iturritako datuen bateratzea sustatzeko oinarriak** ipini behar dira.

3. Estrategia

Erakundeetan aldaketak egiten direnean, lehentasunetan eta estrategietan ere aldaketak egiten dira. Evidentzietan oinarritutako politika batek, **zirklo politikoaren gainetik dauden aldaketa-prozesu hauei jarraipena eman ahal izateko plan estrategikoak** eskatzen ditu. Estrategia jarraitu bat markatzeko balio izateaz gain, datuen baliozkotasunaren jarraipen-

prozesuak garatzeko balio dute, kostu/mozkin erlazioa eta fidagarritasuneko analisia barne hartuta: *(datu bera kostu txikiagoarekin lor daiteke?)*.

4. Zabalkundea eta sentsibilizazioa


Lehendabizi, jada badauden **tresnak** (bereziki teknologikoei) **gehiago zabaldu** behar dira, eragile sortzaileen eta datuen kudeatzaileen artean datuak partekatzeko. Topaketa- eta lan-foroak aktibatzea erabilgarria izan daiteke ezagutza handitzeko eta arlo publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzak sustatzeko (adibidez, BID-Rex proiektuaren esparruan sortu den foroa bera). Azkenik, eguneroko bizitzarako **ingurumenak duen garrantzia herritarrei helarazteko, ikuspegi hurbilago batekin lan egiteko eta herritar-zientzia sustatzeko** ahaleginak egin behar dira.

5. Lankidetzak

Elkarlanean jarduteak **sisteman dagoen informazioa** (ezagutza eta eskuragarritasuna) **hobeto aprobetxatzeko balio du, datuak azkarrago transmititzeko balio du eta datu berriak sortzea** aktibatzen du (adibidez, elkarlanari esker, GISen izandako aurrerapenetan oinarrituta datu ekologikoen sarearen ebazpena hobetzea ahalbidetzen du). Datuak beste kolektibo batzuekin partekatuz eta kolektibo horiek datuak eskuratzen partaide eginez, gune grisak (daturik ez duten eremuak) murrizteaz gain, sinergiak sor daitezela ahalbidetzen du eta proiektu berriak garatzen lagundu dezake *(datua nork duen jakiteak, datu hori eskuratzea eta beste erabilgarritasun batzuk emateko ahalmena ematen du)*. Zentzu horretan, **finantziario publikoaren bitartez lortutako edozein datu publikoarentzako eskuragarri egon behar du**; ideia horretan sakondu behar da.

LANKIDETZARAKO AUKERAK: ETORKIZUNeko AGERTOKIAK ERAIKITZEKO ESTRATEGIA PARTEKATUAK


Aurreko 5 ekintza-ildotan sakonduz, eta ildo horiei ekiteko baliabide gisa arlo publikoaren eta pribatuaren elkarlanaren premisatik abiatuta, saioan hainbat estrategia landu ziren. **Estrategia horiek zailtasunak gainditzeko eta sistema eraginkorragoa eraikitzen hasteko balioko lukete.** Hauexek izan ziren landutako estrategiak:



Sektore pribatuarentzako **beti ez da erraza sektore publikoaren beharrak zein diren ezagutzea.** Ondorioz, ez da behar horiei erantzuteko eskaintzarik egiten. Eta alderantziz, **sektore publikoan zein datu produzitzen diren eta nolako informazioa sortzen den ezagutzeak** sektore pribatuarentzako aukera berriak ekar ditzake, datuari balioa emanez. Komunikazio faltak, zenbait kasutan, eragileen edo pertsonen nahaste-borraste (*nork dauka datua*) batean, datua (eta, beraz, informazioa) “galtzea” dakar.

Bestalde, **informazioa argitaratzeko eta eguneratzeko pizgarriak falta dira** (adibidez, duela 15 urteko erroldak daude), baita **partekatu nahi ez den** (kostua, pribatutasuna, etab. argudiatuz) kasuetan ere. **Interesak** (publikoaren eta pribatuaren artean, publikoaren eta publikoaren artean, eta pribatuaren eta pribatuaren artean) **ez direla beti burutzen eta, zenbaitetan, elkarren aurkakoak ere izan daitezkeela** ulertu behar da. Komunikazioa eta lankidetzak falta da, baita administrazioaren beraren barruan ere.

Askotan **erabilgarritasuna**, gainera, bistaratzera mugatzen da, deskargatzeko eta prozesatzeko aukerarik gabe. Egoera hori larriagoa da datu publikoari loturik dagoenean, eta datuen erabilgarritasuna eta fidagarritasuna hobetuko duten **estandarizazio-protokoloak** (tresna teknologiko bakunagoak barne hartuta) **garatzea** ezinbesteko egiten duenean. Datuak sortzeko, prozesatzeko eta egiaztatzeko, eta prozesuak eta tresnak berriro diseinatzeko **aurrekontu** egonkor bat ez egotea —datuekin lan egiteko **pertsona gaiturik edo inplikaturik** ez egotearekin batera— kontuan hartu beharreko oztopoa da.



Kontua da, gaur-gaurkoz zenbait esparrutan oraindik ez dugula informaziorik. Horregatik, **planifikatzea ezinbestekotzat jotzen den eginkizunetako bat da**. Lehen urrats gisa, informazioa **zentralizatzea eta elkarrekin konektatzea** proposatzen da (ez da beharrezkoa “ezartzea”; nahikoa da beste web edo elkarteak aipatzea), **benetan eskuragarri** izateko. Horretarako, egitura publikoa aprobetxa daiteke eta datuak gehitzeko espazio komun bat sor daiteke. **Tresnen sortzaileen eta pertsona erabiltzaileen arteko konexioa** erraztea ere beharrezkotzat jotzen da **tresna horien erabilgarritasuna hobetzeko**.

Urteko aurrekontu finko bat eta **jada badauden laguntza publikoak** edukitzea lagungarriak izan daitezke, ez bakarrik informazioa **transferitzeko eta balioztatzeko**, baita **dibulgazio-materiala sortzeko eta, modu irekiagoan** (adibidez, plataformen bitartez), **herritarrekin elkarlanean jarduteko** eta baliabide naturalen **balio sozialaren inguruan kontzientziatzeko ere**.

Beharrezkoa ikusten da **ezagutza sortzeko sarea** garatzea eta informazioa sortzen duten pertsonen informazio hori **itzultzeko sarea** garatzea, **lankidetzaren sare egonkor** baterantz aurrera egin nahi badugu. **Baliabide publikoekin finantzatutako datuak beti publikoak izan behar du**, eta lege sistemara ekarri beharko litzateke (hura argitaratzeko administrazioaren oniritziaren zain egon gabe).

Ekarpena boluntarioa den kasuetan (baliabide pribatuen bitartez lortutako datua) **publikoki aitortu** beharko da.

Horren haritik, **adituen batzordeak berritzeak** eta lan hori egin ahal izateko **potentziala duten pertsonak** hurbiltzeak duten garrantzia azpimarratzen da (askotan pertsona aditua “inork ezer ez dakielako zerbait dakiena” da, baina beste kasu batzuetan batzorde mota honetara ezagutza zabala eta profil osagarriak dituzten pertsonak hartzeko aukera galtzen da).

Bestelako praktikak eta komunitateak, nazioarteko esperientziak ezagutzea eta nazioarteko goi mailako sareekin konektatzea ezinbestekotzat jotzen da erronkak partekatutako diren kasuetan, “gurpila berriro ez asmatzeko” (adibidez, ALTER-NET plataforma).

Azkenik, **topaketa- eta eztabaida-foro publiko eta pribatuak** sustatu behar dira (proiektu honetatik sortu dena bezalako edo biodibertsitate-kluster bat izan litekeena bezalako proiektu handizaleagoetatik sortu direnak bezalakoak). Foro horietan, elkarrekin topatzeaz gain, informazioa parteka daiteke, datu-fluxuak eta -iturriak ezagutu daitezke, sistemaren gabeziak hauteman daitezke eta estrategiak defini daitezke.

BID-REX PROIEKTUA

BID-REX proiektua diagnostiko-fase batean dago, eta horren emaitza epe ertainerako ekintza-plan bat izango da. Bien bitartean, parte-hartze prozesuan zehar hautemango diren beharrak edo erabilera posibleak (adibidez, bileran aurkeztutako tresnena) Zuzendaritzara helarazi daitezke eta alde bien bileren bitartez egitura daitezke (edo parte hartzen duten eragile pribatuen artean, Administrazioaren esku-hartzerik gabe, honen beharrik ez dagoenean).

[Natura komunitatea](#) proiektuan komunitate bat dago informazioko beharren inguruan kezka partekatzeko, baita prozesuan interesatuta dagoen edonork jaso dezakeen proiektuari lotutako *newsletter* bat ere.

TAILER PARTIZIPATIBOAREN AURRETIK PARTAIDEEI IGORRITAKO GALDEKETAREN EMAITZAK

Tailerra egin aurretik, Zuzendaritzaren datu-basean erregistratutako pertsona guztiei, bilerarako [esparru-dokumentu](#) bat eta [galdeketa](#) bat igorri zizkieten, bi helbururekin:

- Bere betebeharrak gauzatzeko Euskal Administrazioak dituen informazio-premien inguruko ezagutza maila jakiteko.
- Erabaki politikoak hartzeko prozesu eraginkorrago baterako lankidetzeta-ildoak identifikatzeko.

Galdeketa ondoongo galdera hauek egiten ziren bi eduki-bloketan banatuak:

ADMINISTRAZIOAREN INFORMAZIO PREMIAK	1) Ezagutzen dituzu naturaren kontserbazioaren arloan ebidentzian oinarritutako politika bat garatzeko Administrazioaren oinarrizko informazio-beharrak?
	Ezagutzen ez badituzu, zein zailtasun aurkitu dituzu premia horiek ezagutzeko?
	Ezagutzen badituzu, zure ustez zein dira premia nagusiak?
	2) Administrazioaren informazio-premiei erantzuteko, zein esparru sendotu behar dira zure ustez?
PREMIA HORIEI ERANTZUTEKO ARLO PUBLIKOAREN ETA PRIBATUAREN ARTEKO ELKARLANA	3) Agente aktibo gisa, zure parte-hartzea non uste duzu dela garrantzitsuagoa? Iradokitako erantzunak: <i>Datuak sortzen; informazio eskuraezina eskuratzen laguntzen (informazio grisa eta bestelako informazio mugatua); erabakiak hartzeko behar den informaziorik ez dagoen esparruak identifikatzen; irizpideak definitzen (kontserbazioko aldeko egoerak, erreferentzia-balioak, etab.); Datuen kalitatea baliozkotzen eta egiaztatzen; Beste alderdi batzuetan</i>
	4) Zure erantzunak eta kritiko gisa azpimarratu dituzun alderdiak kontuan hartuta, zer ekarpen egin dezakezu (baliabideak, ezagutza, gaitasunak, etab.) Administrazioak informazio hori bere politiketan erabili ahal izateko?
	5) Ekarpen hori kontuan hartzen laguntzeko, Administrazioak zer egin lezake?

17 galdeketa bete eta jaso dira. Bertan emandako erantzunak honela laburtzen dira modu egituratuan:

Administrazioaren informazio-beharrei buruzko ezagutza maila desberdina da:

- Galdeketa erantzun duten pertsonen erdia inguruk behar horiek ezagutzen dituela dio, eta beste erdiak, berriz, ez dituela ezagutzen.
- Erantzun hori oso baldintzatu dago esparruan eragile espezializatuak badira edo ez badira kontuan hartzen badugu. Biodibertsitatearen kontserbazioan aktiboki lan egiten duten agenteek hobeto ezagutzen dituzte behar horiek.

Ezagutza handiagoa izateko galdeketa identifikatu diren zailtasun nagusiak:


- **Aditua ez izatea: beste esparru batetik dator edo** Sailarekin duen loturaren ondorioz besterik ez izatea ezagutza hori —ez zuzena edo “bilatua”—.
- **Informazioa eskuratzea:** ez da erabiltzaile mailara heltzen, eta horrek ulermena zailtzen du. Gainera, informazio aktiboa falta da eta ez dakite informazioa non aurki dezaketen.
- **Eskuragarri dagoen informazio mota:** ez dago toki mailako egokitzapenik, homogeneousazioa eta protokoloak falta dira, eta horrek irakurketa zailagoa egiten du. Gaur egungo egoeraren eta populazio jakinen (adibidez, hegazti-populazioak neguan) bilakaerari buruzko informazio xehatua ere falta da, eta beste aldagai batzuen inpaktu/erlazioa falta da (adibidez, klima-aldaketak espezieetan nola eragiten duen).

Administrazioaren informazioko oinarriko beharrak ezagutzen zituztela erantzun zuten pertsonen, **lehenetasuneko beharrak zein diren** adierazteko eskatu zitzaien.

Atal honen inguruko erantzunak lau informazio-bloketan biltzen dira:

<p>Populazio basatia / espezie mehatxatuak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Taxon guztietan populazio basatiek jasaten dituzten populazio-joeren ezagutza xehatua, aldizkakotasun erregular batekin eta denbora-epe laburretan analizatua. • Barne hartzen dituzten habitaten kalitatearen eta hauskortasunaren ezagutza. • Gaur egun indarrean dagoen araudia garatzea. Arriskuan dauden espezieen Euskadiko zerrenda bereziki.
<p>Segurtasuna</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Faunaren eta aire-segurtasunaren kudeaketa barne hartzea, eta hauen arriskuen kudeaketan nahastea • Aeronautikaren arloan, aireportuetan eta inguruko guneeetan faunarekin lotutako arriskuak prebenitzeko metodo ekologikoak abiaraztea eta garatzea.
<p>Hegaztiak</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Hegazti negutarren populazioen azterketa. <i>Sacina</i> eta neguko hegaztien atlasa jarri behar dira abian, gaur egun udaberrian hegaztien populazioetarako eskuratzen ari diren informazio bera edukitzeko. • Bestalde, hainbat arrazoren ondoriozko hegaztien hilkortasunari buruzko informazioa edukitzea ere interesgarria litzateke: adibidez, aldatu behar diren eta hegaztien artean egiaztatuta dagoen hilkortasuna eragiten ari diren linea elektriko arriskutsuen zerrenda.
<p>Orokorrak (helburuak eta tresnak)</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ondare naturala kontserbatzea, Euskadin bizi garen pertsona guztien bizi kalitatea eta gozamina lagunduko duten jarduera propioak mantenduz, suspertuz eta sustatuz. • Sentsibilizazioa eta komunikazioa • Datuen ezagutzan eta hauek eguneratzean dauden hutsunetan sakontzea • Jarduketa frogagarriak, kasu praktikoak, burutzea • Toki-administrazioak nahastea • Klima-aldaketaren bioadierazleen programa bat abian jartzea (adibidez, hegaztiekin eta klimarekin loturik)


Administrazioaren informazio-premiei erantzuteko indartu behar diren esparruei dagokienean, honakoak aipatzen dira:



- **Araudia garatzea:** zein informazio eta informazio hori nola eskaini (adibidez, hutsuneak osatzeko, besteak beste, arrainak, ornogabeak, kiropteroak, hegazti edo ugaztun talde jakinak, espezie inbaditzaileak, etab.)
 - Inbertsioa proiektu gehiago egiteko, jarduera hauen ekipamendurako laguntzetan
- **Sistema eraginkor bat edukitzea** lortutako datuen / informazioaren kalitatea, eta erakunde publikoek eta pribatuek erabili ahal izateko aukera bermatzeko.
 - Tresna erabilerrazen garapena (opendata filosofiarekin, datu elkarreraginkorrekin eta abar):
 - Informazio azkarrera eta eguneratura sarbideak
 - Aire-trafikorako arriskutsuak izan daitezkeen hegaztien espazio- eta denborabanaketa
 - Habitaten kontserbazio-egoera eguneratzea eta faunaren basoko espezieen populazioak ezagutzeko azterketak sustatzea

- **Komunikazioa:**
 - Toki mailan sentsibilizatzea (mezu soilak eta hurbilekoak), Administrazioak informazio hori edukitzeak duen garrantzia ulertzeko
 - Komunikazio gardena feedback eraginkorrarekin.
 - Elkarrizketa arina beharren eta datu-sortzaileen artean.
- **Erakunde arteko koordinazioa**
- **Informazioa eskala diferentetara nola eraman**, toki mailatik maila zabalera, eta maila zabaletik toki mailara (informazio horren “itzulpena” eta bere aplikazioa)
- Ondare Naturalaren **baldintza naturalak**, modu batera edo bestera, **aldatuko dituzten** guztiak (kutsadura, klima-aldaketa, espezie inbaditzaileak...)
- **Natura Sarea**

Eragile aktibo gisa duten PARTE HARTZEAri dagokionean, **hiru esparruk balio handiagoa eman dezaketela uste dute** (galdeketan aurredefinitutako erantzunak): **datuak** **produzitzeak**, **beharrezko informaziorik gabe esparruak identifikatzeak** eta **balioesteko irizpideak definitzeak** (*ikus jasotako 17 erantzunen banaketa*)



Lankidetzaren esparru honen barruan, esparru pribatutik eta publikotik eskaintzeko edo garatzeko beharrezko ekintza eta baliabide hauek hauteman zituzten pertsonak:

Esparru pribatuak zer parteka dezake?

Ezagutzak eta irizpidea

- Informazio-beharrak identifikatzeko
- Onura sozioekonomikoak eta kulturalak bermatuko dituzten espazio naturalak kudeatzeko ezagutzak
- Erreferentziako irizpideak definitzeko
- Ezagutza espezifikoak, biodibertsitateko *geodatabaseak* sortzea eta normalizatzea, ekintza-planak eta biodibertsitatea kudeatzeko softwarea
- Aireportuetan faunaren arriskuak prebenitzeko esparruan ezagutza

Informazio garrantzitsua sortzeko ahalmenak

- Lanak burutuz eskuratutako ezagutzan oinarritutako teknikak
- Enpresek baliabide teknikoak eta pertsonak dituzte. Hauek, euren jardura burutuz, informazio kantitate handia eta kalitatezkoa eskaini dezakete.
- Denbora

“Toki-sarea” izatea hedatzeko eta komunikatzeko

- Toki eta eskualde mailako jarduketara zehatzak proposa ditzake: esperientzia praktikoak zabaltzea, sentsibilizazioa...
- Etorkizuneko herritarren (gure ikasleak) artean komunikatzeko eta hedatzeko ahalmena.
- Beste elkarte batzuekin harremana eta koordinazioa.

Administrazioak zer egin dezake hori bultzatzeko?

Erraztea eta informatzea

- Bitartekoak, esperientzien ezagutza, informazioa, estekak, bibliografia eta abar eskura jartzea
- Ematen diren urratsen berri ematea eta informazio garrantzitsurako sarbidea ematea
- Ingurunearen garrantziaren inguruan herritarrak sentsibilizatzeko programak

Sortzea eta garatzea

- Datuak trukatzeko tresnak
- Datuen gabeziak, baterako bilaketa edo alde bakoitzaren proposamenak osatzeko ekintzak, txostenetan bildutako informazioa kontuan hartuta
- Lan interesgarriak burutzea ahalbidetuko duten laguntza ekonomikoak
- Bolumen edo eskala handiagoko programak hauen inpaktua handitzeko (adibidez, ur kontinentalen jarraipena)

Parte hartzea eta laguntzea

- Faunarekin lotutako arriskuak aztertze tokiko batzordeetan
- Esparru-hitzarmenak bultzatzea
- Asoziazionismoa sustatzea
- Udallerriaren eta mankomunitateen garrantzia sustatzea, ingurumena babesteko sustatzaile nagusi gisa.

ERANSKINAK

- ✓ Tailerra iruditan
- ✓ Tailerraren inguruko balorazioa bertaratutako pertsonen aldetik

I. ERANSKINA – IRUDIAK – TAILER PARTIZIPATIBOIA



Medioambiente
@IngurumenEJGV Seguir

#BIDREX Euskadi Matching information to needs

RETWEET 1 ME GUSTA 1

Goizalde Atxutegi
@Goiz... Seguir

#BIDREX @IngurumenEJGV sharing information needs & opportunities with local agents in the Basque Country

RETWEETS 2 ME GUSTA 2

elhuyar
@Elhuyar Seguir

Europako #BidRex proiektuan #partaidetza saioa: ingurumen-politiketarako datuen sorkuntzaz eta erabileraz @IngurumenEJGV @Innobasque

RETWEETS 4 ME GUSTA 2

Lucía Peña
@LuciaSEOEuskadi Seguir





ADAPTACIÓN DE LA INFORMACIÓN A LAS NECESIDADES #BIDREX y la importancia de la #cienciaciudadana @IngurumenEJGV @SEO_BirdLife

RETWEETS 2 ME GUSTA 1

II. ERANSKINA – TAILERRAREN BALORAZIOA

Euskadin eskualde-prozesuaren bigarren tailerra amaitzeko, tailerraren antolakuntzaren, garapenaren eta edukiaren balorazioa egin zen (ikus galdeketako eredu). Galdeketa 15 pertsonak erantzun zuten.

GALDEKETAREN EREDUA

BILERAREN BALORAZIO-ORRIA HOJA DE VALORACIÓN DE LA REUNIÓN				
BALORAZIOA VALORACIÓN				
BILERAREN ORDUTEGIA ETA IRAUPENA EGOKIAK IZAN DIRA EL HORARIO Y LA DURACIÓN DE LA REUNIÓN HAN SIDO ADECUADOS				
GAIAK LANTZEKO MODUA GUSTATU ZAIT ME HA GUSTADO LA MANERA DE ABORDAR LOS TEMAS				
GIROA ATSEGINA IZAN DA EL AMBIENTE DE TRABAJO HA SIDO AGRADABLE				
BILERAN EGON DIREN ERAGILEEN ANIZTASUNA GUSTATU ZAIT ME HA GUSTADO LA PLURALIDAD DE AGENTES QUE HAN PARTICIPADO EN LA REUNIÓN				
EGINDAKO LANA BALIAGARRIA IZAN DA / EMAITZAREKIN GUSTURA GERATU NAIZ EL TRABAJO REALIZADO ME HA SIDO VÁLIDO / ME HE QUEDADO SATISFECHA/O CON EL RESULTADO				
EGIN NAHI DITUZUN OHARRAK: COMENTARIOS QUE QUIERAS REALIZAR:				


Ordutegia eta laneko giroa izan dira **ondoan baloratutako alderdiak**. Bertaratutako pertsonen **profil-aniztasunak** ere **balorazio ona** lortu du.

Balorazio orokor ona lortu arren, **lan-metodologian** bertan zein **egindako lanaren erabilgarritasuna hautemateko unean**, **hobetu beharreko esparruak** antzeman dira.

Edonola ere, mota honetako foroen antolakuntza **era positiboan baloratzen da**, baldin eta eragileen aniztasuna bilatzen bada eta dedikazio-denbora bertan parte hartzeak suposatzen duen esfortzura doitzen bada.

Jarraian, **bildutako erantzunak xehetuta** ikus daitezke:

ORDUTEGIA ETA IRAUPENA




- Nada
- Regular
- Buena
- Muy buena

Galdeketa erantzun duten pertsona guztiek modu positiboan baloratu dituzte iraupena zein lan-ordutegia (*Erantzunak: Okerra-0 // Erdipurdikoa-0 // Egokia-7 // Oso egokia- 8*).

Okerra
Erdipurdikoa
Egokia
Oso egokia

METODOLOGIA ETA IKUSPEGIA




- Nada
- Regular
- Buena
- Muy buena

Gehienen ustez gaiak aztertzeko modua egokia edo oso egokia izan da; % 13, berriz, uste du dinamika erdipurdikoa izan dela (*Erantzunak: Okerra-0 // Erdipurdikoa-2// Egokia-6 // Oso egokia-7*).

Okerra
Erdipurdikoa
Egokia
Oso egokia

LANEKO GIROA




- Nada
- Regular
- Buena
- Muy buena

Galdeketa erantzun dutenen % 80k saioan izandako lanerako giro ona azpimarratu du. Parte hartu duten gainerako pertsonak ere balorazio positiboa egin dute (*Erantzunak: Okerra-0// Erdipurdikoa-0// Egokia-3 // Oso egokia- 12*).

Okerra
Erdipurdikoa
Egokia
Oso egokia

PARTE HARTU DUTEN ERAGILEEN DIBERTSITATEA




Erantzun duten ia pertsona guztiek (% 93) uste dute jardunaldian eragile desberdinen parte-hartzea bermatu dela (Erantzunak: Okerra-0 // Erdipurdikoa-1 // Egokia-6// Oso egokia- 8).

Okerra
Erdipurdikoa
Egokia
Oso egokia

EGINDAKO LANAREN ERABILGARRITASUNA (GOGOBEETZEA)

Galdeketa erantzun duten pertsonen % 13ren iritziz, tailerrean egindako lana erdipurdikoa izan da, % 87ren iritziz egokia izan den bitartean (Erantzunak: Okerra-0//Erdipurdikoa-2// Egokia-6// Oso egokia-7).



Okerra
Erdipurdikoa
Egokia
Oso egokia